

«BIZITZA+ ASEGURU-SORTA» KANPAINAREN OINARRIAK

Agiri honek «BIZITZA+ ASEGURU-SORTA» kanpainarako baldintzak bildu eta zehazten ditu. Kanpainaren helburua da aseguru-mota hauetako poliza berriak kontratatzea: Ehorzketa, Bizitza Arriskua Aldizkako Priman, Osasuna eta Istripuak. Poliza berriok, konpainiaren oinarritzko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete beharko dituzte.

1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2021eko urtarrilaren 1ean hasi eta 2021eko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenez baliatu ahal izateko, adierazietako epearen barruan eman beharko zaie alta polizei. Efektu-datak, berriz, 2022ko urtarrilaren 31ra arteko muga izango du.

2.- Eskaintza

Ehorzketa-aseguru bat (modalitatea: Oinarritzkoa) edo istripu-aseguru bat (modalitatea: Optimoa) kontratatzeagatik, 20 € itzuliko zaizkio bezeroari kontratatutako poliza bakoitzeko, eta osasun-aseguru bat (modalitateak: Más Salud Optima, Más Salud Plus, Más Salud, Más Salud Familias eta Más Salud Familias Plus) edo bizitza-aseguru bat (modalitateak: Bizitza+, Bizitza Emakumea eta Bizitza Optimoa) kontratatzeagatik, 50 € poliza bakoitzeko.

Gainera, bikotekako bizitza-aseguruen kontratazioan ere sustapen berezi bat egingo da: «Bikote Plana». Sustapen horretan, bikoteko bi pertsonak bizitza-poliza berri bat kontratatzen dutenean, 100 € itzuliko zaizkie poliza eta pertsona bakoitzeko, 50 €-ren orde. Bai eta bikoteko pertsona batek Seguros Lagun Arorekin bizitza-aseguru bat kontratatuta badu LABORAL Kutxan eta beste pertsonak bizitza-aseguru berri bat kontratatzen badu ere.

Kanpaina indarrean dagoen bitartean kontratatu behar dira polizak, eta 3. eta 4. ataletako kontratazio-arauak bete behar dituzte (poliza berriak, ordena edozein izanik ere).

3.- Baldintza orokorrak

- 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitartean kontratatutako produkzio berriko polizetarako bakarrik balio du eskaintzak (gehieneko efektu-data 2022ko urtarrilaren 31 izango da)
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuekin batera erabili, TOP eta KIDE markekin izan ezik.
- «Bikote Plana» eskaintzari dagokionez:
 - I. Bikotetzat hartuko da izaera hori duena, familia-unitateko beste kide batzuk alde batera utzita, elkarrekin bizi izan ala ez.
 - II. Pertsona batek LKn bizitza-asegurua duela esateko, honako modalitate hauetako bizitza-aseguru bat izan behar du kontratatuta LABORAL Kutxarekin: Bizitza+, Bizitza Emakumea, Bizitza Optimoa, HBMaren Finantzuriko Hasierako Prima eta HBMaren Amortizazioa. Gainera, beharrezkoa da prima 200 eurotik gorakoa izatea.
- Sustapenez baliatzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko eskubidea gordeko du beretzat.
- Kanpainatik kanpo geratuko dira finantzaketa-eragiketa berriei lotutako aseguruak.
- Ordainketak egiteko epea: saria lortzeko eskubidea ematen duen polizaren efektu-dataren ondorengo 90 egunak.
- Polizak urtebetekoa izan beharko du.
- Poliza bakoitza urtean behin ordaindu beharko da, osasun- eta ehorzketa-polizak izan ezik; poliza horiek hileroko ere ordaindu ahal izango dira. Batzuk eta besteak LABORAL Kutxan helbideratuta egongo dira.
- Oparia poliza bakoitzaren helbideratze-kontuan dirua itzuliz gauzatuko da.
- Gehienez ere 120 € itzuliko zaizkio pertsona bakoitzari, «Bikote Plana» eskaintzan izan ezik. Horretan, 170 € itzuliko zaizkio pertsona bakoitzari, kanpainan sustatutako produktu bat baino gehiago kontratatuz gero.



4.- Produktuaren baldintzak

BIZITZA ARRISKUA:

- Modalitateak: +Bizitza, Bizitza Emakumea eta Bizitza Optimoa.
- Gutxieneko prima: 200 €.
- Ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin.

ISTRIPUAK:

- Modalitateak: Istripuak Optimoa.
- Gutxieneko prima: 120 €.
- Ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin.

OSASUNA:

- Modalitateak: Más Salud, Más Salud Plus, Más Salud Optima, Más Salud Familias eta Más Salud Familias Plus.

EHORZKETA

- Modalitateak: Oinarritzkoa.
- Gutxieneko prima: 80 €.

• **Aseguratzailerak:**

Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida SA, Sanitas SA de Seguros, EXPERTIA, Seguros de Decesos SA.

• **Sustatzailea:**

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetakoko operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu zerbitzuaren baldintzak hemen: aseguruak.laboralkutxa.com